

## *Etxean kontu kantari*

### *Txitxitela papatela*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte

Txitxi tela  
papa tela,  
bihar dela Bazko,  
etzi xinger moko,  
arrautza eta koxko.  
Nik axala,  
hik mamia,  
krik!, ahorako.

Nola erabili: Esanahi lauso baten azpian ezkututzen da haurra jan arazteko formula bat. bazkaltzen ari deneko unea. Koilarakada eta koilarakada artean kontutxo bat, koilara hegan haurraren ahoaren inguruan...

### *Euria dator menditik*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte

Euria dator menditik  
Ondarroako aldetik.  
Ez daukat zapatatxurik,  
Banoa Lekeitiotik.

Nola erabili: Kantu bat da, besterik gabe, autoan goazela kantatzeko edota etxeke festa batean

### Aztiak zurrin-zurrinka

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartearen

Sei aztik, zurrin-zurrin,  
erre zuten patata bat.  
Sei aztik zurrin-zurrin,  
zer afaria zuten bart!

Bost aztik, zurrin-zurrin,  
erre zituzten bi erbi.  
Bi erbi, patata bat.  
Bost aztik zurrin-zurrin,  
zer afaria zuten bart!

Lau aztik, zurrin-zurrin,  
erre zituzten hiru miru.  
Hiru miru, bi erbi, patata bat.  
Lau aztik zurrin-zurrin,  
zer afaria zuten bart!

Hiru aztik, zurrin-zurrin,  
erre zituzten lau makailau.  
Lau makailau, hiru miru, bi erbi, patata bat.  
Hiru aztik, zurrin-zurrin,  
zer afaria zuten bart!

Bi aztik, zurrin-zurrin,  
erre zituzten bost bildots.  
Bost bildots, lau makailau, hiru miru, bi erbi, patata bat.  
Bi aztik, zurrin-zurrin,  
zer afaria zuten bart!

Azti batek, zurrin-zurrin,  
erre zituen sei behi.  
Sei behi, bost bildots, lau makailau, hiru miru, bi erbi, patata bat.  
Azti batek zurrin-zurrin,  
zer afaria zuten bart!

Nola erabili: Metatzen den ipuin honek afaria barregarri bat agertzen da. Zenbat eta azti gehiago azaldu orduan eta janari gutxiago geratzen da. Hala ere denek jaten dute... Buruz ikasi eta behin eta berriz errepikatzeko aproposa da ipuintxo hau. Ezetx nahastu gabe esan! Behin buruz ikasi ondoren, antzeppen bat egin daiteke jolasean